

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Laburpena, Amurrioko Udalaren tokiko gobernu batzarrak 2016ko irailaren 22an hartutako Erabakiarena, zeinaren bidez dirulaguntza deialdia egin baita 2015ean seme-alabak izan edo adoptatu dituztenentzat**

BDNS (identifikatzailea): 318969

Bat etorri azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu ahal da (<http://www.pap.minhp.gob.es/bdnstrans/index>):

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

2015ean jaio eta/edo adoptatu den haurren aita edo ama (familia unitatea osatzen duten aita edo ama), baldin eta haurra jaio edo adoptatu den unean familia unitatea Amurriion errol-datuta bazegoen eta baldintza hori betetzen jarraitu bada eskaera aurkezteko unera arte.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea da 2015eko jaiotza eta/edo adopzio berrien estaldura soziala zabaldu eta osatzea, jaiotzak sustatzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arauak**

Amurrioko Udalaren osoko bilkurak 2016ko apirilaren 27an onartu zituen, eta ondoren haien testu osoa 2016ko ekainaren 17ko ALHAOn, 69. zenbakian, argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 10.000,00 euroekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Hogeita hamar egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2016ko urriaren 4a

*Alkatea*

*JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*